




LANDA LAN A DOCUMENTATION OF DARCY LANGE

Tractora Koop. E.-ren proiektua



Sarrera





1

Darcy Langek *work studies* edo «lan-estudioak» izena eman zien bere lanei. *Work studies* horiek lanean dabiltzan pertsonen bideo-behaketa luzeak dira. Langek *work* hitza erabili zuen eta ez *labour*, azken hori lotuago dagoelako jardueraren dimentsio ekonomikoarekin eta konnotazio politiko gehiago dauzkalako. Aldiz, *work* hitzak konkretuagoa den zerbaiti egiten dio erreferentzia, zehazki, esfortzua erabilerari eta zerbait lortzeko egindako lanari. Era berean, jarduera osoaren minimo komuna den aldetik, *work* hitzak nolakotasun orokortzaile eta abstraktua hartzen du. Bestalde, ikerketa zerbait ulertzeko edo ezagutzeko egiten den esfortzu gisa uler daiteke. Gainera, praktika artistikoan obra bat gauzatu aurretik egindako prestakuntza-lanari egiten dio erreferentzia.

Langek fabrika eta tailerretan, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiaketat, fabrika eta meatze handietan, eskolako eta etxeko inguruneetan, aisialdiko jardueretan, kirol-txapelketetan, emanaldi edo *performance*etan eta artisten, musikarien eta poeten tailerretan egin zituen aipatutako *work studies* horiek. Are gehiago, lan bakoitzari eman zion tituluak nor, zer jarduera egiten eta non grabatu zuen identifikatzen zuen. Langek behin baino gehiagotan azpimarratu zituen bideoak memoriaren euskarri sentikorra izateko dituen nolakotasunak. Horrez gain, bere obraren atzean entziklopedia bat sortzeko borondatea zegoela ere esan zuen.

- | | |
|-----|---|
| 1.A | Darcy Lange
<i>Five Working Studies in British Factories and Workplaces</i> (1972)
Darcy Lange. Hazbete ½-ko bideo-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 1h 51' 25" |
| 1.B | Darcy Lange
<i>Allotment Gardens, U.K.</i> (1972)
Darcy Lange. Hazbete ½-ko bideo-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 52' 01" |
| 1.C | Darcy Lange
<i>Ruatoria, Study of a Sheep Gathering and a Tangata Whenua Shearing Gang. New Zealand</i> (1974)
Hazbete ½-ko video-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 2h 54' 45" |
| 1.D | Darcy Lange
<i>Clem Coxhead, Cow Milker. Opunake, Taranaki, New Zealand</i> (1974)
Darcy Lange. Hazbete ½-ko video-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 32' 04" |
| 1.E | Darcy Lange
<i>Cantavieja. Work Studies in a Spanish Village. Maestrazgo, Castellón, Spain</i> (1975)
Darcy Lange. Hazbete ½-ko video-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 2h 00' 34" |

1.F	Darcy Lange <i>Craigdarroch, Scotland (1973)</i> Hazbete ½-ko bideo-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 1h 30' 30"
1.G	Darcy Lange <i>Portraits of Waitara Freezing Works, New Zealand (1974)</i> Hazbete ½-ko video-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 1h 50' 03"
1.H	Darcy Lange <i>Vern Hume, Aerial Top Dressing, Taranaki, New Zealand (1974)</i> Hazbete ½-ko video-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 46' 57"
1.I	<i>Competition Axemen, Agricultural Show, Stratford (1974)</i> Hazbete ½-ko video-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 15' 56"
1.J	Darcy Lange <i>HERA, Study of a Tangata Whenua Tree Feller. Waitaanga, New Zealand (1974)</i> Hazbete ½-ko video-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 28' 15'
I	The Block <i>Gerry, (2016)</i> 16mm zinema, digitalera transferitua. The Blockek utzia.
II	1.K Dan Graham/Darcy Lange <i>Performer / Audience / Mirror (1975)</i> Hazbete ½-ko video-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 22' 52". Electronic Arts Intermix-ek utzia.
1.1	DLA/000264 Darcy Langeren arkatzez egindako marrazkia, Zeelanda Berrian ikasten zueneko.
1.2	DLA/000005, DLA/000006, DLA/000007, DLA/000008 David Kerr <i>Craigdarrocheko (Eskozia)</i> artile-ustiategi bat gobernatzen zuen artzaina zen (1973). Gutunak trukatu zituen Darcy Langerekin, bere lana bideoan grabatu aurretik, bitartean eta ondoren. Grabaketaren ondoren, Darcy Langek bere Citröen 2CVan berriz bidaiatu zuen Eskoziara, zinta artzainei erakusteko. David Kerr ez zen bertan egon, baina Londresen hura ikusteko tematu zen. Bidali zizkion gutunetako batean, Davir Kerrek Darcy Lange zoriondu zuen bideoagatik, baina, adeitasunez, eskatu zion grabaketa-egunean eguraldi txarra egiten zuelako etxola batean grabatu behar izan zuten eta normalean kanpoan egiten den jarduera bat berriz grabatzeko. David Kerr kezkatuta zegoen bere jardueraren itxura txarra ematearekin.


- 1.3 DLA/000228
Darcy Langeren argazki-artxiboan, ugariak dira auto baten barrutik ateratako paisaien irudiak. Argazki hau adibidez AEBetako «road trip» batekoa da.
-
- 1.4 DLA/000031
«A study of a woman at work» (Emakume baten azterketa, lanean ari dela) lanean, tarteko adineko emakume bat agertzen da arropa zabaltzen. Jarduera hori Super 8-rako grabatu zuen «Social Consideration, Communication and Observation» proiektuaren zati moduan (1971).
-
- 1.5 DLA/000031
«Video Art»-en azaldu zuenaren arabera, irakasle izan zen urteetan, Darcy Langek trenez bidaiatzen zuen Ingalaterrako ipar-ekialdeko hirietara, han egiten baitzuen lan. Leihotik, fabriken alboetako baratzetxikiei begiratzen zien. Hemen oso modu sintetikoan deskribatutako bi proiektuak egoera horri dagozkio agian. «A study of a bussinesman commuting» (Negozio-gizon baten azterketa, lanera bidean doala) eta «A study to be carried out in the allotments, specially in the small plots of the Midlands» (Baratzeetan egin beharreko azterketa bat, bereziki Midlands eremuko lursail txikietan). Azken hori *Allotment Gardens, UK* bideoari dagokio (1972). Lehenarekin alderatuta, bigarrena grabatu zuenean auto bat zuen jada, Citroën 2CV bat, eta grabazioa autopistaren bazterretik egin zuen.
-
- 1.6 DLA/000084
Darcy Langek zenbait auto izan zituen, denak ere Citroën 2CV; haren klubeko kide zen. 2CVrekin Ingalaterra, Europa eta Zeelanda Berria ibili zituen. Bere atzera begirako *Land, Work, People* (1985) erakusketan, atean aparkatzea erabaki zuen. Darcy Langerentzat, 2CVa lan-tresna bat zen, eta memoria-biltegi bat.
-
- III Isidoro Valcárcel Medina
Motores (1973). Kasete-zintan editatutako audio-grabazioa. Autoen motorren soinuekin osatutako zinta. Erabilitako ibilgailuak: Citroën Dyane (1973) 602 cc. eta Ford Zephyr (1954) 2270 cc. Bidaiak bi igandetan egin zituen, jarraian, 1973ko abenduan, 09:00etan.
SONMek utzia, musika esperimentaleko eta soinu-arte fonoteka.
Murtziako Udaleko Puertas de Castilla zentroa.
-
- 1.7 DLA/000007
Darcy Langek lehen belaunaldiko Sony Portapak bideo-kamera batekin grabatu zituen bere *work studies*-ak. Phil Slight lagunak utzi ziona hasi zen erabiltzen. Hura ere artista zen, Zeelanda Berrikoa, Ingalaterran bizi zena, eta hark ere irakasle egiten zuen lan. 1974an, kamera propio bat erosi nahi izan zuen, eta Sonyrekin harremanetan jarri zen, Asia eta Hego Pazifikoko dibisioan, ziur asko Zeelanda Berrira bidean; han grabatu zituen sei *work studies*.
-
- 1.8 DLA/000058
Gitarra flamenko baten sokak. Darcy Lange flamenko gitarrista izan zen. Zeelanda Berriko Unibertsitatean hasi zen gitarra flamenkoa jotzen, eta bitzta osoan jarraitu zuen. Phil Slightek, lehen gitarra utzi zionak, bere irakasle izango zena ere aurkeztu zion, Diego del Gastor, Morón de la Fronteran.
-

1.9 DLA/000016

Ian Murray artista kanadiarraren postala. Bertan, laguntza eskaintzen du Darcy Langeren 60 orduko iraupeneko bideoak U-Matic-era transferitzeko.

1.10 DLA/000016, DLA/000018

Erabili zituen bideo-zintak berekin eraman zituen Darcy Langek lekualdatu zenean. Denboraren joanak eta haiek kontserbatzeko baldintza eskasek zaharkitu ahala hondatu zituzten. Laurogeiko hamarkadan, Darcy Langek aholkua, laguntza eta finantzazioa bilatu zuen arazo horri aurre egiteko. Horretarako, berak lan egindako hainbat erakunderekin jarri zen harremanetan. *Land, Work, People* erakusketa zela-eta, Govett-Brewster Art Gallery-k aukera eman zuen hazbete erdiko bideo-zintak U-Matic-era transferitzeko. Urte batzuk geroago, digitalizatu egin ziren, bereziki formatu horretatik.



A Documentation of Calverton and Pleasley Coalmining Communities, Nottingham, UK (Nottingham-go (EB) Calverton eta Pleasley meatze-komunitateen dokumentazioa) (1973) eta *A Documentation of Bradford Working Life, UK* (Bradford-eko (EB) lan-bizitzaren dokumentazioa) (1974) goi-mailako *work studies* unitateak dira, Darcy Langek «dokumentazio» deitzen dituenak. Darcy Langek *cross-section* (euskaraz zeharkako sekzioa) terminoa erabili zuen ikuspuntu mota horri erreferentzia egiteko. Ikuspuntu horrek estudio-agregatuen arteko analisi konparatiboa ahalbidetzen zuen; meatzarien kasuan, eskualde bereko bi ustiaketaren artekoa, eta Bradford-en kasuan, hiri bereko industria-jardueraren lau enpresa esanguratsuren artekoa.

A Documentation of Calverton and Pleasley Coalmining Communities, Nottingham, UK (1973) lanaren fokua meatzeetako bizitza komunitarioan jarrita dago; hau da, erauzte purua inguratzen duten jarduerak, lana eta aisialdi-, borroka- eta mantenu-jarduerak uztartzen ditu. Horiek guztiak gertutasunetik jorratzen ditu Langek, esperientziatik. Langek ordura arte meatzeetan egiten ari zen lanarekin jarraitu zuen *A Documentation of Bradford Working Life, UK* (1974) lanean; hala ere, bat-batean lanaren eskala handitzeak *work study* bakoitza egiterakoan ikuspuntu sistematikoago bat hartzera derrigortu zuen, eta, beraz, baita lan guztiak artikulatzeko modu berria bilatzera ere. Proiektu horietako bakoitzaren indexazioa gero eta garrantzitsuagoa zen, eta hainbat baliabide erabili zituen horretarako: argazkiak, 16 mm-ko zinema-laginak, eskemak, transkripzioak edo horien guztien konbinaketak.

2

2.A Darcy Lange

A Documentation of Bradford Working Life, UK (1974).

Darcy Lange. Hazbete 1/2-ko bideo-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 2h 25' 46''

Lehen egoera

Altzairu-galdategia, Osborne Steels Ltd., Low Moore.

1. azterketa: «Ijezketa-trena» - N. Magliore, O. Moyston, K. Harper, J. Charington, C. Teleamuque, R. Martin, F. Pashley, D. Robertshaw, B. Cook, A. Josephe.

2. azterketa: «Lixatzea» - Leon Franzier, Godfrey Broadbent.

3. azterketa: «Labeak» - Charley Helps, Alan Wright, Harry Barraclough.

Bigarren egoera

Whiteheads Woolen Mills

1. azterketa: «Artile-orrakera frantses erara» - Mrs. O'Connor.

2. azterketa «Artile-orrakera tradizionala» - Alah Dad.

3. azterketa: «Irutea» - Mrs. Alice Jennings.

4. azterketa: «Irutea» - Theresa Hird.

Hirugarren egoera

Hepworth & Grandage Ltd — Ingalaterrako pistoi eta pistoien uztai ekoizle nagusia.

1. azterketa: «Verson prentsaketa»- Roy Penny.

2. azterketa: «Pistoi-ikuskatzea» - Miss June Bell.

3. azterketa: «Tornu bikoitzak» - Albert Ozolins.

Laugarren egoera

Posta bidezko salmentako biltegia — Grattan Ltd.

1. azterketa: «Paketatzaile baten azterketa» - John Wood.

2. azterketa: «Paketatzaile baten azterketa»- Burford Maunders.

3. azterketa: «Eskaerak prestatzea» - Michael Normington.

4. azterketa: «Eskaerak prestatzea» - Kevin Bulmer.

5. azterketa: «Txartel zulatuen operadorea»- Janet Thornton.

2.B Darcy Lange

A Documentation of Calverton and Pleasley Coalmining Communities, Nottingham, UK (1973)

Hazbete ½-ko bideo-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 2h 00' 52''

2.1 DLA/000033

A Documentation of Calverton and Pleasley Coalmining Communities osatzen duten elementuak laburtzen dituen dokumentu bat (1974): Argazkiak, bideoa, 16 mm-ko zinema eta meatzarietako bati, Patrick Phelani, egindako elkarrizketaren transkripzioa. Horiek guztiak indize rola jokatzen dute bideoarekiko, bideoaren edukia laburtzeko moduak direnez gero. Langek ez zuen meatze barruetan grabatu, eta hori bi modutan uler daiteke: alde batetik, kamerak argi-baldintza txarretan grabatzeko mugak zituela. Bestetik, lana lan-jardun zurruna baina haragokoa dela aintzat hartzea, meatzari-familien bizitza- eta aisia-jarduerak ere barne hartuta.

2.2 DLA/000033

Patrick Phelan meatzariarekin izandako elkarrizketaren transkripzioa mekanografiatua.

Euskarara eta gaztelaniara itzulitako faksimilea.

2.3 DLA S/N

Video Art (2001) liburuaren eskuizkribua. Artista bizirik zela editatutako liburu monografiko bakarra. Hasieran, atzera begirako *Land, Work, People* (1985) erakusketa laguntzeko katalogotzat funtziona zezakeen argitalpena izan zedin pentsatu zuen; tonu autobiografiko hunkigarri batean idatzita dago, eta bizi-esperientzia eta praktika artistikoa lotzen ditu. Irudiek eta testuak erakusten du garai onean zeudela meatzariak, gobernuak beren aldarrikapenei erantzun baitzien, beren lan-eskubideen alde egindako 1972ko grebaren ondoren.

2.4 DLA/000033

Meatzeen mapa, National Coal Board-ek editatua. Erakunde hori 1947an sortu zen, Erresuma Batuko meatze nazionalizatuak kudeatzeko. Darcy Langek erakunde horren baimena izan zuen meatzeetan grabatzera sartzeko. Mapan, eskuz marraztutako zirkulu batek Londres inguratzen du, eta ohar bat gehitzen du: «diruaren bizilekua»

2.5 DLA/000033

Meatzeetako jarduerari buruzko liburuxka dibulgatiboa, National Coal Board-ak editatua

2.6 DLA/000213
Darcy Langek argazkien bidez dokumentatu zuen *Land, Work, People* bere banakako erakusketa aurrera eramateko egin zuen muntatze-lana. Erakusketa horretan, *A Documentation of Calverton and Pleasley Coalmining Communities* instalatu zen, elementu guztiekin: Argazkiak, bideoa eta 16 mm-ko zinema proiektio bikoitz bat, biraka, bere garaian zinema bat zen erakusketa aretoko hiru solairuak gurutzatzen zituena. Nolabaiteko analogia formala dago meatzeetako ateratzeko azpiegituraren eta proiektoreen bira-mekanismoaren artean.

2.7 DLA S/N
Land Work People atzera begirako erakusketa bat izan zen. Artistak berak antolatu zuen, Zeelanda Berrira itzuli zenean, familiarekin hara joan baitzen bizitzera. Jatorrizko posterrak iragartzen duen moduan, erakusketa hilabetez bisitatu ahal izan zen.

2.8 DLA/000062
Govett-Brewster Art Gallery-k egindako Darcy Langeren *Land, Work, People* erakusketarako gonbidapena. Govett-Brewster Art Gallery Darcy Langeren jatorrizko eskualdeko arte-zentro publikoa da. Egun, Govett-Brewster Art Gallery-k zaintzen du artistaren artxiboa, eta jabetza Darcy Lange Estate-k dauka.

2.9 DLA/000215
Kontaktu-orri honetan agertzen diren argazkiak John Millerri egozten zaizkio Darcy Langeren artxiboan. Langeren lagun bat izan zen, argazkilaria eta maori jatorrikoa, eta harekin lan egin zuen Zeelanda Berriko hainbat proiektutan. Argazkiek *Land, Work, People* (1985) erakusketaren inaugurazioa dokumentatzen dute, eta museoaren instalazioan egindako bat-bateko hamaiketako bat, ziur asko muntatzen zuten bitartean. Darcy Langeren *work studies*-ek, askotan, bai hamaiketakoa eta bai hamaiketakoaren prestaketa barne hartzen zituzten. Askotan, Darcy Lange bera agertzen zen bideoetan langileekin hamaiketako-ordua partekatzen, eta, hala, kameraren alde bateko eta besteko lana berdintzen ziren.

IV Erzbergeko (Estiria, Austria) aire zabaleko burdin-meatzeetako mineral lagina. Pisua: 27 kg. Fe edukia: % 38.0tik 40ra, gutxi gorabehera. Usue Arrieta eta Vicente Vázquezen lan-dokumentua, *The Exhaust Note* (Ihes-tonua) (2013) proiektuaren barruan.
Usue Arrieta eta Vicente Vázquezek utzia.

V Gold 20 beira-lagina, Guardian Industriesek haien Tuterako fabrian ekoitzia (Nafarroa). Ainara Elgoibarren lan-dokumentua, *Gold 20* (2012) proiektuaren esparruan.
Ainara Elgoibarrek utzia.

VI Cota 818. Ikatz-lagina. Santa Luciako meatzetik ekarria (Leon). Nader Koochakiren lan-dokumentua, *Cielo Abierto* (2018) proiektuaren barruan.
Nader Koochakik utzia.

VII DLA/000433
Footnotes, Bibliography of Post Partum Document for ICA New Gallery 1976 by M Kelly-ren original posiblea, Darcy Langeren artxiboan aurkitua. Mary Kellyk 1976an Londresko ICAn erakutsi zuen *Post-Partum Document* erakusketaren aretoan aurkibide eta hura osatzen zuten piezen ohar moduan funtzionatzen zuen dokumentua zen. Artistaren beraren webgunean, honela deskribatzen da proiektua: «Post-Partum dokumentua ama eta semearen arteko sei urteko esplorazioa da. Lehen aldiz erakutsi zenean, 1976an, Londresko ICAn, tabloideak haserrarazi zituen, I Dokumentazioak pixoihal zikinak zituelako. Sei ataletako sailetako bakoitza semearen hizkuntza-ikasketako prestakuntza-une batean kontzentratzen da, eta amaren galdera-sentimenduan, amaren eta semearen eta ikusle analitikoaren ahotsetan mugituz. Psikoanaliaren eta feminismoaren eragina izan du lanak, eta arte kontzeptualaren kritikaren garapenean eragin handia izan du». Mary Kelly Londresera mugitu zen 1968an, Central St. Martin's School of Art-en ikasteko. Langeren artxiboan, Kellyk sortu zuen eta haren presidente izan zen Artist' Unionen bileren aktak ere badaude.

VIII DLA/000397
Darcy Langeren liburuen artean, Tom Burrows artistaren dokumentua dago; hau da izenburua: «Squatting: A Contemporary Phenomenon» (Okupazioa, fenomeno garaikide bat). Tom Burrows eskultore kanadar bat da, hirurogeita hamarreko hamarkadan Kanadako, —testuinguru horretan aktiboki egiten zuen lan—Europako, Asiako eta Afrikako fenomeno sozial horren dokumentazio-proiektu bat egin zuen. Burrowsek «dokumentazio-paketeak» («documentation package») eskaintzen zituen; diapositiba-erakustaldiz eta/edo ikus-entzunezko materialaz lagundutako hitzaldiak ziren, hori guztia «a seven month written, audio-recorded and photographic documentation»-en zatia, («zazpi hilabeteko idazketaren dokumentazioa, audio-grabazioz eta argazki-dokumentazioz osatua»). Egun «Skwat Doc» (1981-1983) izenburua duen pieza Kanadako Morris and Helen Belkin Art Gallery-ko bildumakoa da.

«Squatting: A Contemporary Phenomenon»-en portadan, eskuz idatzita, Tom Burrowsen kontaktua eta Amsterdameko harremanetarako pertsona batena agertzen da «best person to contact the squatters»«squatterekin harremanetan jartzeko pertsonarik hoberena». Darcy Langek hainbatetan bisitatu zuen Holanda, eta han bizi izan zen ere egonkorki. Ohar horiekin batera, Darcy Langek beste bi idatzi zituen: Torontoko Unibertsitateko «Media Center»-ekoa, eta beste kontaktu baten datuena; hau irakurtzen zen horren ondoan: «Video Dist & Help Re Indian Distribution Information».

IX *Manifesto for Maintenance Art 1969! Proposal for an Exhibition 'CARE' (Mantengutza artearentzat Manifestoa 1969! Erakusketa batetarako proposamena)* (1969). Mierle Laderman Ukeles. (AEB, 1939). Mierle Laderman Ukelesek, bere semea jaio eta urtebetera, mantenuaren artearen aldeko manifestua idatzi zuen. Mantenuaren eta zaintzaren lan-estatutua berriz aztertzeke deia da, bai arlo pribatuan eta etxean eta bai arlo publikoan.

X *Dressing to Go Out/Undressing to Go In.* (Irtekeko janzen eta sartzeko biluzten) (1973) Mierle Laderman Ukeles (EEUU, 1939) (1973ko negatiboak, 1998an positibatuta). 145.57 x 112.87 x 2.06 cm. 48.26 x 33.02 cm.

Manifesto for Maintenance Art 1969! Proposal for an Exhibition 'CARE' (1969) lanaren jarraipen moduan, Ukeles mantenu-lana arte moduan esploratzen hasi zen; horretarako, ama zenez etxean zituen lanak dokumentatzen hasi zen, eguneroko zeregin errepikakorrak barne, adibidez pixoihalak garbitzea eta seme-alabak janztea etxetik ateratzeko. Etxeko zereginak artearen esparrura goratuz, arreta-fokua etxeko lanen eta amatasun-lanen zailtasunean eta garrantzian jarri zuen. Argazki sail horiek une batean zein bestean erregistratzen dute artistaren haurrak janzteko eta erantzeko zeregina: Yael, lau urte eta erdikoa eta Rachel, bi urte eta erdikoa. Argazkiei presa-tankera hartzen zaie, eta horrek ama izatearen lan errepikakor eta ikusezinaren berri ematen du, eta, era berean, familia barruko intimitatearen berri ere bai.

Ronald Feldman Gallery eta Mierle Laderman Ukelesekin utzia.

-
- 2.10 DLA/000035
«*A Documentation of Bradford Working Life*» (1974) proiektuaren deskribapena. Testuan hau dio: «Nire asmoa lanaren irudia lan moduan adieraztea da, zeregin moduan, jarduera moduan, sormen moduan eta denboraren kontsumo moduan»

Facsimil

-
- 2.11 DLA/000035
MI autobidearen tarifak dituen txartela. Londres Ingalaterra iparraldeko hiriekin lotzen du; Birmingham, Leicester eta irakasle jardun zuen beste hiri batzuekin.

-
- 2.12 DLA/000007, DLA/000006
Bradfordeko Industrial Enquiry Center-en laguntzarekin (Industria-ikerketarako Zentroa), Darcy Lange hainbat enpresarekin jarri zen harremanetan haien instalazioak grabatzeko. Batzuek ezetz erantzun zioten, eta beste batzuek, baietz. Gutun horietako batean, posta bidezko salmentako Grattan Ltd. enpresako prestakuntza-arduradunak Darcy Langeri adierazi zion interesa zuela instalazioetan grabatutako zintak ikusteko.

-
- 2.13 DLA/000035
Thornton Labour Club-eko (Thornton-eko langileen kluba, Bradford) txartela. Darcy Langek dio Video Art-en klub honetako kide izateak harro sentiarazten zuela.

-
- 2.14 DLA/000006
Darcy Langek 1973an sindikatuen kongresuan parte hartu zuela akreditatzen duen txartela; seguruenik, *A Documentation of Bradford Working Life*, UK (1974) prestatzeko garaian.

-
- 2.15 DLA/000035
Bradfordeko oihal-ekoizpen prozesua deskribatzen duen dokumentua, Australiako merkatuan artilea erostetik oihalak ekoiztera bitarte.

-
- 2.16 DLA/000006, DLA/000007, DLA/000008
A Documentation of Bradford Working Life (1974) erakusketak, Bradfordeko Industria Museoa, hainbat atzerapen izan zituen,

askotariko arazoak zirela eta. Hala adierazi zion, gutun hauen bidez, lehenik, Bradford City Art Gallery and Museums-ek, eta, ondoren, Bradford Metropolitan District-ek. Hasieran, 1974rako zegoen programatua, baina, azkenik 1976an inauguratu zen.

2.17 DLA/000007

Erresuma Batuko Barne Ministerioak Darcy Langeri bidalitako gutuna. Bertan, adierazten zaio zabaldu egiten zaiola herrialdean geratzeko baimena, eta pasaporte bidaltzen dio. Ingalaterran bizi izan zen urte horietan guztietan, Langek askotan justifikatu behar izan zuen langilea zela, bisa berri ahal izateko.


2.18 DLA/000110

«Social Consideration, Communication and Observation» (1971) proiektuaren esparruan Darcy Langek egindako lan-prozesuaren dokumentazioa, Super 8an grabatua, bideoa deskubritu aurretik. Artxiboan, «English Industrial Town» moduan dago katalogatua. Fabrika baten ondoko eskola bateko jolastokian porlan armatuzko hodian artean jolasten duten haur batzuen argazkia.

XI

Errodamenduen ekoizpen-prozesuaren gainerako materiala, Tuterako SKF fabrikatik ekarria (Nafarroa). Usue Arrietak eta Vicente Vázquezek *Goitik behera, behetik gora* eta *GELDI* proiektuen esparruan egindako lanaren prozesuaren dokumentua: (2011-2018).

Usue Arrieta eta Vicente Vázquezek utzia.



3

Darcy Lange musika ikasten hasi zen Aucklandeko Unibertsitatean, baina oso goiz utzi zuen programa oso akademikoa iruditu zitzaizolako. Aurrerago, unibertsitate horretan bertan graduatu zen Londresko Royal College of Art-en beka batekin ikastera joan baino lehen. Behin ikasketak bukatuta, irakasle ibili zen Ingalaterrako, Holandako eta Kanadako hainbat erakundetan. Irakaskuntzarekiko zuen interes hori bere praktika artistikora hedatu zen. *Study of Three Birmingham Schools, UK* (Birmingham-eko (EB) hiru eskolaren estudioak) (1976) eta *Studies in Four Oxfordshire Schools, UK* (Estudioak Oxfordshire-ko, EB, lau eskolatan) (1977) bere proiektu ezagun eta sistematikoen artean daude. Bertan irakasle eta ikasleen arteko ikerketa konparatibo bat egin zuen Birmingham-eko eta Oxfordshire-ko hainbat eskolatan. Aipatutako *work studies* horien ezaugarri bereizgarri bat *feedback* edo berrelikatzeak duen garrantzia da; lehenik eta behin klaseak grabatu zituen Langek, eta gero zintak erakutsi zizkien irakasle eta ikasleei. Zintak ikusi ondoren, irakasle nahiz ikasleek zintak ikusten zituzten bitartean izandako erreakzioak erregistratu zituen. Oxfordeko Arte Modernoko Museoa egin zen *Studies in Four Oxfordshire Schools, UK* (1977) lanaren lehen erakusketa, eta bertan, Darcyk eztabaida-saio bat antolatu zuen, eskola guztietako irakasle eta ikasleak eta erakusketarekin erlazionatuta zeuden artearen munduko pertsona batzuk bildu zituena. Eztabaida hori ere grabatu zuen, betiere hazbete 1/2-ko zinta magnetikoaren bitartez.

3.A Darcy Lange

«*Study of Three Birmingham Schools, UK*» (1976)

Hazbete 1/2-ko bideo-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 5h 24' 24'

Ladywood Comprehensive School

Roger Perks. Irakaslearen erreakzioa.
Roger Perks. Ikasleen erreakzioa.
Mr. Brenton. Ikasgelako azterketa.
Derek Hamburton. Fisika.
Paul Nagle. Erromatar bideak.

King Edwards Grammar School

Mr. Trott. Literatura ingelesa eta hizkuntza. I. azterketa.
Martin Stead. Enpresa-ikasketak.
Mr. Rigby. Biologia. I. atala.

Leabank Junior School

Mr. Hughes. Gurpila.
Elkarrizketa Mr. Hughesi.
Miss Hunter. Haur Hezkuntzan irakasten.

Ladywood Comprehensive School

Gabon eguna.

Leabank Junior School

Haur Hezkuntzako batzarra.

King Edwards Grammar School

Antzerki taldea.

School of Art Education Birmingham

Mintegia.

Darcy Lange

Studies in Four Oxfordshire Schools, UK (1977)

Darcy Lange. Hazbete 1/2-ko bideo-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 8h 47' 18''

Banbury Comprehensive School

Tony Morgan. Arte-klasea.

Elkarrizketa Tony Morgani.

Ikasleen erreakzioa.

Cheney Upper Comprehensive School

Eric Spencer. Arte-klasea.

Chris Wright. Historia-klasearen azterketa. I. estudioa.

Chris Wright. Historia-klasearen azterketa. II. estudioa.

Chris Wright. Historia-klasearen azterketa. Elkarrizketa Chris Wrighti.

Chris Wright. Historia klase baten estudioa. Ikasleen erreakzioa.

Bailey. Kimika-klasearen azterketa.

Bailey. Ikasleen erreakzioa.

St. Mary's Private Girls School Wantage

Mrs. Shalgosky. Arte-klasea.

Mrs. Shalgosky. Mrs. Shalgosky-ren erantzuna.

Mrs. Shalgosky. Ikasleen erreakzioa.

Mrs. Webb. Historia-klasearen azterketa.

Mrs. Webben erantzuna.

Mrs. Webb. Ikasleen erreakzioa.

Miss Astani. Kimika-klasearen azterketa

Radley Private Boys School

Charles Musset. Arte-klasea.

Charles Musseti elkarrizketa.

Charles Musset. Ikasleen erreakzioa.

Eztabaida Museum of Modern Art Oxforden.

3.1 DLA/000262

Marrazketa naturaleko ariketa, Aucklandeko Elam School of Art-en (Zeelanda Berria). Bertan, eskulturan graduatu zen. Eszenak ez du soilik modeloaren gorputza hartzen, bere ikaskideak ere barneratzen ditu, modeloa marrazten ari diren bitartean.

3.2 DLA/000002

Zeelanda Berrian eskultore izateko prestakuntza amaitu ondoren, Darcy Langek beka bat eskatu zuen Londreseko Royal College of Art-en ikasten jarraitzeko. Eskutitzean aipatzen du bere eskultoretako batzuk Aucklandeko Unibertsitateari saltzeari esker, urtebetez egon ahal izango duela bertan. Hala ere, Commonwealtheko atzerritar batek bertan lan egiteko dituen mugak ikusita, beka bat beharko zuen ikasketak amaitu arte Londresen bizi ahal izateko. Azkenean, beka eman zioten.

3.3 DLA/000005

Londresen bizi zen bitartean, Darcy Langek amak Zeelanda Berritik bidalitako hainbat opari-txartel jaso zituen. Txartelak arkume-haragiko bost libera esterlinarengatik aldagarriak ziren.

3.4 DLA/000004, DLA/000007, DLA/000010, DLA/000014

Royal College of Art-en ikasketak bukatu ondoren, Darcy Langek lana bilatu zuen arte irakasle gisa. Horri esker, Erresuma Batuan jarraitzeko bizileku-baimena berriztatu ahal izan zuen, baita bertan bizitzen jarraitu ere. Langek eginiko lan gehienak arduraldi partzialekoak ziren, lehenengo Ingalaterran eta gero Europa, AEB eta Kanadako erakunde aitortuetan.

3.5 DLA/000004
Ikasle talde hipotetiko batentzako prestakuntza-programaren proiektua. Dokumentu horretan, Darcy Langek ikasleak animatzen ditu beren lan-eta gizarte-inguruko pertsonekin harremanetan jartzera, behaketaren bidez eta pertsona horiekiko interakzioa erregistratuz, ondoren analisi bat egin ahal izateko.

3.6 DLA/000008
David Askevold artista kontzeptual kanadiarrak ikasgai bat sortu zuen 1970ean NSCADen (Nova Scotia College of Art and Design), «Advanced Media Seminar and Studio Course» izenekoa. Bertan, artista esperimental ezagunak gonbidatzen zituen ariketak sortzera, ikasleekin batera praktikan jarri ahal izateko. 1976an Kalifornian eginiko erakusketa baten gonbidapen batean idatzitako ohar honetan, Askevoldek Darcy Langeri adierazten dio harekin harremanetan jarriko dela eskola edo konferentzia bat emateko aukera dagoenean.

3.7 DLA/000011
1976an, Dan Graham artista amerikarrak eman zuen NSCAD-en (Nova Scotia College of Art and Design) «Advanced Media Seminar and Studio Course» ikasgaia. Dan Grahamek zenbait artista eta pentsalari gonbidatu zituen; haien artean, Darcy Lange. Ikastaro horren ezaugarrietako bat izan zen kable bidezko telebista-kanal batekin lan egin zutela. Kanala, aldi berean, sorkuntza artistikorako gaia eta tresna zen.


XII Narayana's Cows (Narayana-ren behiak) (1989). Tom Johnson (AEB, 1939). Narayana XIV. mendeko matematikari indiarra izan zen; hark proposatu zuen problema hau: behi batek txekor bat ematen badu urtero, laugarren urtearen hasieran txekor bakoitzak ere beste txekor bat emango du urte bakoitzaren hasieran. Hortaz, zenbat behi izango ditugu, adibidez, hamazazpi urteren buruan? Tom Johnsonen pieza honek problema matematiko hori hartzen du oinarri, eta haren ebazpena proposatzen du, testua, irudia eta musika uztartzen dituen konbinazioan.
Pieza hau zuzenean joko da, erakusketaren *finissage* ekitaldirako programatutako jardueren barnean.

Tom Johnsonek utzia.

3.8 DLA/000009
Torontotik (Kanada) bidalitako igorlerik gabeko postal honetan, egileak Darcy Langek bere hirian erakutsitako bideo-zintekiko admirazioa adierazten du. Besteak beste, hau esaten dio: «Krzysztof Wodiczkok esandakoa (zu «bideoaren Engels»-a zarela) benetan egokia da». Postala 1971. urtean sortutako A Space Gallery-koa da; Kanadako espazio hori artistek kudeatutako lehena izan zen.

3.9 DLA/000194
AEBra itzuli zenean, Darcy Langek hazbete 1/2-ko bideoan hasi zen grabatzen eskoletako bete bi proiektu handienetako bat. Eta bere bizitza osoan egingo zuen bezala, bideoak argazkiz lagundu zituen. Kontaktu-orri hauek Langeren *Study of Three Birmingham Schools, UK* (1976) lanaren prozesuaren parte dira.

-
- 3.10 DLA/000009
Darcy Langek harremana izan zuen Toronto eta Vancouverreko arte testuinguruarekin. Postal honetan, Ian Murray artistak (Halifax, Eskozia Berria, Kanada) elkarrekin lan egiteko aukera proposatzen dio.
-
- 3.11 DLA/000265
Eskoletako bere bigarren proiektua (*Studies in Four Oxfordshire Schools, UK (1977)*) lehenengoa baino sistematikoagoa izan zen. Langek berak adierazi zuen proiektu horretan Grahamen lanak eragina izan zuela.
-
- 3.12 DLA/000311
Oxfordeko Arte Modernoaren Museoan eginiko *Study of Teaching in Four Oxfordshire Schools, UK (1977)* lanaren erakusketaren jatorrizko katalogoa.
-
- 3.13 DLA/000038
Darcy Langek maiz bere bideoak laguntzen edukiaren transkripzio-hautaketekin. Eskolan kasuan, Mr. Hughes-en (Leabank Junior School), Mr. Brenton-en (Ladywood Comprehensive School) eta Mr. Trott-en (King Edward's Grammar School) klaseen transkripzioak aurkitzen ditugu. Oxfordshire-en Tony Morgan, Charles Musset, Mrs. Shalgosky eta Mrs. Webb irakasleekin egindako elkarrizketa zatiak transkribatu ziren bideoak ikuskatu ondoren. Transkripzio hauei proiektua Oxfordeko Arte Modernoaren museoan aurkeztu zenean izandako eztabaidako pasarteen transkripzioak gehitu dizkiogu Tractorak.
Facsimil
-
- 3.14 DLA/000038
Study of Teaching in Four Oxfordshire Schools, UK (1977) lana amaitzen zuen bitartean, Darcy Langek Kasseleko VI. Dokumentan 16 mm-an grabatutako film bat ekoitzi eta aurkezteko proposamena egin zuen; film horrek proiektua osatuko zuen. Argazkien bidez egiaztatu dezakegu eskoletako azterlanetako batzuk bideoan nahiz 16 mm-an grabatu zirela.
-
- 3.15 DLA/000038
Darcy Langek finantzaketa-laguntza eskatu zion Britainia Handiko Arts Council-ari eskolei buruzko 16 mm-ko film hori ekoizteko. Ikasgelako lanaz gain, Langek azterlana zabaldu nahi zuen ikasle eta irakasleen testuinguru sozial eta familiarretara. Filma amaitu gabeko gisa sailkatzen da. Langek bizi izan zen toki orotan proiektatu zuen bere eskoletako work studies-ei jarraipen bat ematea (ikusi 4.10 dokumentua)
Landa Lan erakusketaren ekintza paraleloen parte gisa, Tractora-k mediazioko departamentuarekin, HUUHEZIREkin eta EHUarekin elkarlanean, Darcy Langeren metodotik abiatuta ikustentzunezko eragiketa serie bat eroan dugu aurrera.



4

1977an, Darcy Lange Zeelanda Berrira joan zen, eta bat egin zuen maorien luraren eta eskubideen aldeko mugimenduari. Maorien mugimendu honek Bastion Point okupatu zuten poliziak hustu zuen arte, eta gatazkaren puntu larrietako bat izan zen. Langek Bastion Pointen grabatu zituen zintak Van Abbemuseum-en (Holandan) *Maori Land Project* (Maoriar luraren proiektua) (1977-1980) izeneko erakusketa egiteko oinarria izan ziren. Erakusketa horren bitartez maorien kausa zabaldu nahi izan zuen, eta, aldi berean, bideoaren edizioa problematizatu. Garai hartan gaurkotasunekoa zen fenomeno konplexu batean parte hartzeak aldaketa sakona ekarri zuen bere lan-metodologian, eta bereziki tirabiratsua eta zaila izan zen maila ekonomikoan zein emozionalean, batez ere lankide izan zituen pertsona maoriekiko harremanetan. Hala ere, tinko eutsi zion maorien eskubideen defentsari, eta bere bitartekaritzari esker, Colin Clark Rotterdamen egin zen Ameriketako Indigenen Eskubideei buruzko laugarren Russell Auzitegira gonbidatu zuten maorien komunitatearen ordezkari gisa. Lange behin betiko itzuli zen Zeelanda Berrira 1985ean, eta bai irakaskuntzan, bai bideogintzan lan egiten jarraitu zuen, eta ikuspuntu ekintzaile eta komunitarioago bat hartu zuen hala maori kulturari, nola bideogintzari dagokionez. *Lack of Hope. Coop for a New Future* (Esperantzarik eza. Koop. Etorkizun baterako) (1986) lanak sakonki jorratzen ditu maori komunitateetako lankidetzajarduerak, eta kooperatiben erabilera langabeziaren alternatiba gisa. Horrez gain, baso-ustiaketaren inguruko interesa erakutsi zuen, baita maori komunitate batzuek multinazionalen pinua era intentsiboan landatzearen aurka izan zuten erresistentziaren ingurukoa ere. Baso-industria eta artilea ekoizteko ardi-abeltzaintza dira Zeelanda Berriko ekonomia kolonoaren zutabeak, eta eragiketa horiek guztiak lurren desjabetzearen oinarrituta daude, hain zuzen, 1970eko urteetan Maori Mugimenduaren matxinatzea eragin zuen horretan. Aipatutako jarduera biak oso ondo irudikatu zituen Langek bere *work studies* lanen bitartez.

4.A Darcy Lange
Lack of Hope. Coop for a New Future (1986)
Hazbete 1/2-ko bideo-zinta. Digitalera transferitua identifikatu gabeko euskarri batetik. 1 h 23' 36"

4.1 DLA/000049
Maori Land Project lanean, Darcy Langek bideoa editatu zuen lehen aldiz. Horretarako, muntaketa problematizatu zuen estrategia formal gisa. 1980an, Van Abbemuseum (Eindhoven, Holanda) museoan eginiko erakusketarako Darcy grabatutako zintak 4 edizio egin ziren. Lehenengoa Victor Jara Collective zinemagile aktibisten kolektiboari agindu zitzaion, TV NOS kanalerako. Kolektibo horrek, halaber, beste bi bertsio ere egin zituen; kasu honetan, Leonard Hennyk zuzendutako soziologiako ikerketa talde batentzat. Bertsioetako bat maorien

aldekoa zen eta bestea ez. Bi filmak Holandako ikasle taldeei aurkeztu zitzaizkien, hasiera batean ikusleentzako ezezaguna den gai bat aurkeztean, edizioak zer-nolako eragina duen aztertzeko xedearekin. Azken edizioa, luzeena, Darcy Langek berak egin zuen. Dokumentu honek denbora-lerro bat irudikatzen du, proiektuaren eskema orokorra.

4.2 DLA/000011

René Coelho, Amsterdam Montevideo bideo-banantzailearen fundatzailea, ezinbestekoa izan zen proiektu honetan. Gutun honetan, Coelhok Darcy Langeri jakinarazten dio funtsak eskatzen ari dela Lange Holandara joan eta proiektua garatu ahal izateko. Era berean, telebistarako editatu beharko litzatekeen «produktuari» eta «zirkuitu alternatiborako» sortu beharrekoari buruz mintzatzen zaio.

4.3 DLA/000045

Van Abbemuseum-eko erakusketarako proiektu-proposamena. Testuak hauxe dio. «Maorien herriaren eta bere lurralde-arazoaren analisia. Erakusketa honen helburu nagusia da maorien herriaren (Zeelanda Berriko jatorrizko herria) ulermenean sakontzea, baita gaur egun Zeelanda Berrian maoriek duten lurralde-arazoan eta jarrera soziopolitikoan ere. Erakusketaren kontzeptuak zinema, soziologia eta estetikaren alorretako espezialistak bildu ditu, nik jasotako materialen analisi mailari altuena egiteko xedez. Era berean, materialari behar bezalako erabilera publikoa, hezitzailea eta artistikoa eman nahi zaio, maorien mundua eta herri horren arazoak hobeto ulertzea errazteko».

4.4 DLA/000042

Darcy Langeren *Maori Land Project* lanren muntaketarako denbora-lerroa.

4.5 DLA/000201

Holandako Van Abbemuseum-en eginiko *Het land van de Maori* (Maorien lurra) lanaren erakusketaren gonbidapena.

4.6 DLA/000042

Maori Land Project Bastion Point (Zeelanda Berria) eremuaren okupazioa lantzen du. Bastion Pointek esanahi sinboliko handia du maoriek beren lurra berreskuratzeko eginiko borrokari dagokionez. Poster honek Maraeko utzaraztea irudikatzen du; espazio horretan artikulatzen da maorien komunitate-bizitza. Argazkiarekin batera poema bat dago, atxilotutako 222 pertsonen omenezkoa; poemak, amaieran, maoriak borrokara deitzen ditu.

4.7 DLA/000042

Maori Land Project lanaren muntaketa eta erakusketa nahiko arazotsua izan zen maorien ikuspuntutik. Pertsona horiek, Langeren ahaleginak gorabehera, ez zuten muntaketan aktiboki parte hartu, arazo ekonomikoak zirela eta. Gutun honetan, Darcy Langeren lagun eta kolaboratzaile John Miller argazkilariak Leonard Hennyri azaltzen dio (horrek Darcy Langeren materiala erabiliko du bere soziologia azterketetarako) maorien gatazkari buruzko bere iritzia eta Langek grabatutako zinten edukia eta erabilera. Bere iritziz, maorien komunitatea bizi duten egoeraren analisi-prozesuan murgilduta dago. Langeren zintak baliotsuak badira ere, ez dute gatazka behar bezala estaltzen.


-
- 4.8 DLA/000049
Dokumentu honetan, hau argumentatzen da: «Zergatik bozkatu behar duzu «bai» Bastion Pointeko erreferendumean». Dokumentuan gatazka azaltzen da.
-
- 4.9 DLA/000050
Prentsa zatiak erabiliz egindako muralaren argazkia eta zati horiek ageri den edukia azaltzen duen dokumentua. Darcy Langek elementu hauek aurkeztu zituen *Het Land van Maori Zeelanda Berria* izandako Bastion Pointeko gatazkari buruzko erakusketan, Van Abbemuseum-en, Holandan.
-
- 4.10 DLA/000232
Darcy Langek *work studies* azterlanak egin zituen Zeelanda Berriko eskoletan, bai *pakehas*-ekin (kolonoen oinordekoak) bai maoriekin. Urte batzuk lehenago Oxfordshire eta Birminghamen eginiko proiektuen jarraipena dira.
-
- 4.11 DLA/000013
Gutun honetan, Leonard Hennyk Darcy Langeren inguruko maoriei — haien artean John Miller— jakinarazten die maorien kausa Ameriketako Herri Indigenen Eskubideei buruzko Laugarren Russell Epaitegira eramango dela, eta horretarako pertsona baten bidaia eta mantenua ordainduko direla.
-
- 4.12 DLA/000051
Darcy Lange Ameriketako Herri Indigenen Eskubideei buruzko Laugarren Russell Epaitegiko parte-hartzaile gisa kreditatzen duen txartela.
-
- 4.13 DLA/000051
Leonard Hennyren argitalpena: *Film and Video in Sociology (Zinema eta Bideoa Soziologian)*. Utrechteko Unibertsitateko (Holanda) Soziologia Institutuko Bitartekoen Azterketa Programak editatu zuen.
-
- 4.14 DLA/000051
Eskubideei buruzko Laugarren Russell Epaitegiko eskuko programa.
-
- 4.15 DLA/000051
Eskubideei buruzko Laugarren Russell Epaitegiko jatorrizko kartela. Horren bidez aurkezten da Colin Clark, maorien kausaren ordezkaria.
-
- 4.16 DLA/000051
Poster honetan hau irakur daiteke: «To Our America. 50 Years in History. The problem of the Land. The Problem of the Indian. The Problem of the Races in America» (Geure Amerikari. 50 urte Historian. Lurraldearen azaroa. Indiarren arazoa. Arrazen arazoa Amerikan).
-
- 4.17 DLA/000051
The Great Law of the Longhouse People (Etxe Komunaleko Herriaren bakeari buruzko lege handia) izeneko jatorrizko argitalpena. Dokumentuaren orrialdeen artean, Darcy Langek eginiko argazki bat jasotzen da. Irudian, Colin Clark azaltzen da, herri indiarren ordezkariekin (identifikatu gabe) hitz egiten.

-
- 4.18 DLA/000050
Russell Epaitegiaren ondoren, Darcy Langek *Haka/Four Winds Project (Haka, lau haizeetako proiektua)* izeneko proiektua idatzi zuen. Bertan, Bastion Pointeko filma osatzeaz gain, asmo hauek ere jasotzen zituen: Maorien arteko erakusketa bat Europako museoetan; Colin Colin Clarken Pazifikoan Lurraldearen Eskubideak defendatzeko Epaimahai bat sortzeko nahia, Russell Epaitegian inspiratuta; eta Holandan maorientzako eta kolektibo minoritarioentzako bideo eta komunikabideei buruzko tailer bat ematea.
-
- 4.19 DLA/000055
Otarako Komunitate Zentroan (Zeelanda Berria) eman nahi zen bideo-ikastaroaren tailerra; tutorea Darcy Lange izango zen. Helburua da «bideogileak» prestatzea, komunitaterako modu profesionalean lan egiteko moduan.
-
- 4.20 DLA/000055
Darcy Langeren bideo-ikastaro baten asteko programa. Horretan, oinarri gisa hartzen du musika-ikastaro baten egitura, musika-tresna bideo-kamerarengatik aldatuz.
-
- 4.21 DLA/000079
Real Pictures Vídeo erakundearen programazio-dokumentua. Erakunde hori Darcy Langek eta Ian MacDonaldek sortu zuten, bideoaren banaketa, erakusketa eta ekoizpen xedeekin. Dokumentuan hau adierazten da Real Picture Videori buruz: (*Bideoaren esparruan lan egiten dutenei laguntza emateko zerbitzuak sortzen saiatuko da. Lankidetzarako espirituari eta merkataritzako errealismoari eutsiko zaie, konprometitutako taldeak nahiz gizabanakoak sustatu eta diruz laguntzeko*).
-
- 4.22 DLA/000055
Darcy Lange Langileen Kooperatiba Sozietateko Parihaka Hui-ko hasierako antolakuntza-taldeko (Co-operative Worker's Trust) kide gisa agertzen da. Sozietate horrek askotariko tailerrak programatzen zituen. Tailerretako baten edukian «Mondragón eredu» aipatzen da.
-
- 4.23 DLA/000054
Lack of Hope (1986) bideo-proiektuaren posterra. Bertan dokumentatzen dira maorien kolektiboen kooperatiba-egitasmoak, Zeelanda Berrian garai hartan bizi zuen krisi ekonomikoaren alternatiba gisa planteatutakoak. Krisi horren arrazoi nagusienetako bat izan zen Britania Handia Europar Batasunean sartzea; horrek izugarritzako eragina izan zuen Zeelanda Berriko esportazioetan. Horrek eta gobernuan izandako aldaketa neoliberalak langabezia tasa altuak ekarri zituzten. *Lack of Hope* lanak arreta jartzen du maorien gatazkan, zehazki korporazio multinazionalak maorien lurraldean eginiko ustiapenean: bertako zuhaitzak moztu eta pinuaren landaketa masiboa egin zuten.
-
- 4.24 DLA/000054
Lack of Hope lanaren edukia deskribatzen duen dokumentua. Bertan, halaber, bideoaren erabilerari buruzko zenbat jarraipen jasotzen dira: («BIDEO HAU ERABILTZeko JARRAIBIDEAK. Itxaropen gabezia - Koop. Etorkizun berria. Hausnartu eta beste lagun batzuekin eztabaidatu

nahiko dituzun ideia asko jasotzen dira hemen. Langabezian interesa duten edo hori sufritzen duten lagunekin ikustea gomendatzen dizugu. Utzi argiak piztuta. Programari buruz hitz egin ikusten duzuen bitartean. Geldiarazi eta gaiari buruz mintzatu. Behar duzun zatia berrikusi. Egun edo arratsalde batean osorik ikusi ezin edo nahi ez baduzu, ez kezkatu; beste egun batean jarraitu ahalko duzu. Zure taldeak soilik zati batean edo bitan interesa badu, ikusi zati horiek bakarrik»).

4.25 DLA/000221
Maori Land Project-en dokumentazioa.

- XIII Ibon Aranberri
«*Aurretik eta ondoren*» (2018). Ibon Aranberrik sortutako 80 irudi biltzen dituen behin-behineko diaporama, 1998an ateratako argazki batzuetan oinarrituta. Horien bidez, *insignis* pinu-basoen silueta horizontalaren arketipoa jaso nahi zen. Hasierako argazkiak AP-8 autobidetik atera ziren, autobusaren ibilbidean.
Ibon Aranberrik utzia.



Darcy Langek artista gisa jorratu zituen bi dimentsioak, hau da, irudi-denboraren ekoizpena eta *toque* italicea flamenkoa, paraleloki garatu ziren bere bizitzan zehar. Gitarra flamenkoa jotzen hasi zen Elam School of Art-en. Ingalaterran, Phil Slight-ek utzi zion bere lehen kamera, garai berean baitzebiltzan irakasle. Gainera, geroago bere irakasle bihurtuko zen Diego del Gastor ere aurkeztu zion. Darcy Lange Morón de la Fronterara joan zen bere Citröen 2CV-an Royal College of Art-ean eman zituen urte guztietako udetan, bertako artetik eta bizimodu ijito eta flamenkotik ikasteko, betiere barne hartuta bere dimentsio produktiboa, ekonomikoa eta politikoa. Bere familiarekin Zeelanda Berrira behin betiko itzuli zenean, flamenkoa familia-ekonomiaren euskarri bihurtu zen tailerren, eta Paco Campanak (baita De la Campaña edo Paco de Taranaki) eta María Helenak (Maria Sneiders, bere emazte eta flamenko-dantzaria) egin zituzten emanaldien bitartez. *Aire del Mar* (1988-1994) lanarekin, Darcy Langek bere pasioak uztartu zituen, —bideogintza, gitarra eta paisaietan barrena bidaiatzea, edo formarik abstraktuenean, lana, bizitza eta natura— «ikus-entzunezko opera musikal» batean bilduz. *Aire del Mar* askoz handiagoa izan behar zuen zerbaiten bertsio murriztua izan zen halaber Pedro G. Romerok Dan Graham-en —Darcy Langeren lagun handia— aipu bat dakar *Antípodas*; *Darcy Lange, trabajo y flamenco en la cadena de producción de imagen* izeneko idazkira. Lan hori *Darcy Lange. Estudio de un Artista en su trabajo* izeneko liburuan jasota dago, Mercedes Vicenteren edizioaren eskutik. «Hirurogeita hamarreko hamarkadan, abangoardiako rockak eta musika esperimentalak eta flamenkoak New Yorken zituzten posizio baztertuak ez ziren hain ezberdinak». *Aire del Mar* lanaren *performance* batzuk, besteak beste, erakusketan ikus daitekeena, bideoan grabatu ziren.

5

5.A Darcy Lange
Aire del Mar (1988-1994)
 Identifikatu gabeko euskarririk digitalera transferitutakoa. 42' 20"

XIV Ferrán Llagostera
Vida y trabajo en el Mar de Terranova (1989).
 Digitalizatutako High-8 bideo-zinta. 1h 2' 00".

Ferrán Llagosterak (Sant Joan de les Abadesses, Girona, 1947) bideoan grabatu zituen bere *Gran Sol* (1989) filmeko zinema-grabaketaren eszenak, baita itsaso zabaleko arrantzaleen bizitzakoak eta lanekoak ere. *Vida y trabajo en el Mar de Terranova* (Terranovako itsasoko bizitza eta lana) lanak Saint Pierre de Miquelónen eta Terranovako itsasoetan grabatutako materiala biltzen du. Tripulazio gehiena galiziarra zuen arrantzontzi batean ontziratu ziren Llagostera eta haren taldea. Grabaketa-taldea hiru pertsonak osatzen zuten: Xavier Camí (kamera), Jaume Segura (soinua) y Ferrán Llagostera (zuzendaria). Saint-Pierre-et-Miquelon itsasoz haraindiko lurralde frantsesa da, Kanadako kosta parean kokatua. Historikoki, Kantauri itsasoko bakailao-ontzi bikoteentzako portutzat erabili da.

- 5.1 DLA/000058
Darcy Langeren jabetzako argazkiak, Diego del Gastorren inguruarenak, Morón de la Fronteran (Cadiz). Diego del Gator flamenkoko gitarrista eta Darcy Langeren maisua izan zen. Europan bizi zen udetan, Lange haraino joaten zen bere Citroën 2CV autoan, harengandik ikasteko. Darcy Langek *Video Art*-en idatzi zuen Diego del Gator musikan eta bizitzan izan zuen influentzia handienetako bat izan zela.
-
- 5.2 DLA/000234
Darcy Langeren argazki pertsonalak, Espainiara egindako bidaia batean, María Sneijders flamenko-dantzari holandarrarekin batera. Darcy eta María Holandan bizi ziren garai horretan (1980-1981), eta gitarrarekin batera bidaiatzeko erabiltzen zuten Citroën 2CV autoa ere hangoa zen.
-
- 5.3 DLA/000059
1975ean, Darcy Langek *Flamenco as work* (Flamenkoa lanbide gisa) izeneko proiektua bidali zuen British Film Institute-era. Hau jasotzen zen sarrera orokorrean: (Proiektu honek flamenkoa lanbide gisa landuko du. Era berean, horri lotutako hainbat gai landuko ditu; hauek, adibidez: landa lantzen ari den jendea, olibak prozesatzeko fabriketan lan egiten duena, industriaren esparruko lana, emigratzaile gisa Frantzia eta Alemaniak lan egin dutenak, jendea turismoan, eta oro har, soldata bat jasotzen. (Prostituziotik eta lagun, turista, ikasle eta abarregandik bizitzeko aukerak).
-
- 5.4 DLA/000495
A Study of Flamenco as Work proiektuan, Darcy Langek adierazten du Don Pohrenen laguntza jasoko duela; hark idatzi zituen *The Lives and Legends of Flamenco* eta *The Art of Flamenco* liburuak, flamenko anglosaxoiaren munduan eragin handia dutenak. Pohren *El Cortijo Espartero* finkaren jabea zen (Morón de la Fronterako aldirietan eta Moróneko aireko babe militar estatubatuarretik gertu). *El Cortijo Espartero* atzerritar askoren topagunea zen (batez ere anglosaxoiarena); bertan biltzen zirenek musika flamenkoa eta ijitoen bizimodua maite zituzten. Pohrenek jaiak antolatzen zituen El Gastorren gitarraren inguruetan.
-
- 5.5 DLA/000008
Gutun honetan British Film Institutek jakinarazten dio ez duela finantzatuko *Study of the Art of Flamenco as Work*.
-
- 5.6 DLA/000058
El Gastorri (Cadiz) buruzko liburuxka. Diego del Gastorren omenaldian argitaratu zen, eta «La Gastoreña» poema dakar, emakume baten etxeko lanari buruzkoa.
-
- 5.7 DLA/000058
Darcy Langek Londresko ICAn bere irakaslearen, Diego del Gastorren, omenez emandako kontzertua. Haren argazkia erdialdean agertzen da. Diego del Gator 1973an hil zen, Darcy *Craigdarroch, Scotland* (1973) grabatu ondoren. *Video Art* lanean, Langek haren heriotzak emandako kolpea adierazten du.

-
- 5.8 DLA/000058
Zeelanda Berriko Urenuiko tokiko prentsa-zatiak. Darcy Lange, Maria Sneijders eta haien seme-alabak agertzen dira. Flamenkoa bihurtu zen familiaren bizimodu.
-
- 5.9 DLA/000035
Poster honetan, Darcy Lange eta Maria Sneijdersek flamenko *performance* bat iragartzen dute.
-
- 5.10 DLA/000035
Poster honetan, Paco de Taranakik (Darcy Lange) eta Maria Helenak (maria Snijders) emanaldi bat iragartzen dute.
-
- 5.11 DLA/000035
Aire del Mar-en posterra, «Ikus-entzunezko opera musikala». Bertan, Darcy eta Miriam Lange beren izenarekin iragartzen dute beren burua, *performer* moduan. *Aire del Mar* (1988-1994) zuzeneko *performance* bat da. Gitarra, kantu eta dantza flamenkoa egiten zuten, sinkronizatutako diapositiben proiektzioa zutela atzealdean, eta bi bideo-monitorerekin, askotariko irudiak erakusten zituztenak, besteak beste, *A Documentation of Bradford Working Life, UK-eko* (1975) *work studies*-ak.
-
- 5.12 DLA/000059
«Flamenko-performance baterako plana: Hasierako bira ondorengo ideia konplexuago baten bertsio sinplifikatua izango da. Hainbat paisaia eta subjektu irudikatzen dituzten diapositibak, eta, beraz, sentimendu eta iruzkin desberdinak.
I.e., Flamenkoko *solear*-ek bakardade eta kentze espiritua daukate, eta jotzen diren bitartean, Goyaren eta Espainiako mendien diapositibak erakuts daitezke.
Seguiriya-k tragediaren inguruak izaten dira, eta iluntasunari buruzko diapositibak erakuts litezke; adibidez, Goyaren *Los horrores de la guerra*, hil-hurreneko paisaiekin batera, hil-hurreneko basoak eta abar. Zeelanda Berriarekiko harremana paisaiaren erabilera izango da; adibidez, baso birjina bat bizitza bere horretan sortzearen irudikapen moduan».
Irudi batek *Aire del Mar*-en bertsio sinplifikatua erakusten du, diapositiba-proiektzio bakar batekin, gitarrista eta flamenko-dantzari batekin.
-
- 5.13 DLA N/A
Errotulagailuz egindako marrazkiak, *Aire del Mar*-en diapositibaren zati den Goyaren *Los Fusilamientos del 2 de Mayo* lanaren eta hil-hurren dagoen zuhaitz baten arteko analogia erakusten duena.
-
- 5.14 DLA/000042
Greenpeaceren Rainbow Warrior-en jatorrizko liburuxka. Darcy Langek harremana zuen erakunde horrekin. Bere sinboloa olibondo-adaxka bat daraman uso zuri bat da. Nola Rainbow Warrior hala uso zuria *Aire del Mar*-en ikonografiaren parte dira. Zutabe garrantzitsua zen ekologiaren eta natuaren gaineko kezka.

-
- 5.15 DLA/000027
Dan Grahamek Darcy Langeri bidalitako postala. Adierazten dio «bideo-film batean lanean» hasten ari dela, «partzialki zure (Darcy Langeren) rock-musikaren eta erlijioaren inguruko lanean inspiratua (...) *Shaker*-ekin hasten naiz, hegoaldeko rock'n roll guztiarekin jarraitu, ondoren arte-munduko komunalismoa/indibidualismoa —adibidez, NYCen askok arte- edo musika-ibilbidea egitearen artean duten dilema (zuk zeuk ere bai!) Nahi dut musikaren soinu-banda gailena izatea, eta Glenn Brancarekin lan egin nahi dut edizioan (lagun musikari bat). Bai, zure lanaren modukoa da. Baina Amerikari eta Britainia Handiari buruzkoa da —agian harekin lagundu ahal izango zenidake—. Europara joan ninteke «oporretan».
-
- 5.16 DLA/000140
Elam School of Arten (Auckland) eskultura ikasle jardun zueneko kontaktu-orria. *Hard edge* eskultura handinahiak egin zituen, metalezkoak eta, indarren oreka irudikatzen zuten kolore batean lakatuak. Darcy Langek kanpoaldean jarri zuen eskultura, Auckland Memorial War Museumetik gertu, eta bere kideekin batera grabatu zuen —besteak beste, Alyson Hunter bere bikotekidea—, 16mm-an. Kamerak *dolly* moduan bultzatzen zuen sidekar batetik grabatzen zuen bitartean, *travelling* bat egiteko, Darcy argazkiak ateratzen zizkion eszenari; hau da, artistei, lanean ari zirela. Argazkien artean, bat auto bati eskainita dago.
-
- 5.17 DLA/000058
Paco Campanaren CD baten portada (edo Paco Campaña, edo Paco de la Campaña); horiek guztiak Darcy Langeren izen artistikoak dira.
-
- 5.18 DLA/000199
Elam School of Arteko karrera amaierako tesia, Darcy Langek aurkeztua, Marcel Duchampi buruzkoa. Duchampek, frantsesez, de la Campaña esan nahi du (lautadakoa).
-
- 5.19 DLA/000035
People of the World-eko (1983-1984) ikus-entzunezko *performance*-a. Darcy Langek Holandako gutxiengo etnikoetako kide ziren musikariekin jotzen zuen; herrialde horretan izan zen *performance*-a.
-
- 5.20 DLA/000052
People of the World-eko argazkiak (Holanda, 1983-1984)
-
- 5.21 DLA/000015
Gutun honetan, Darcy Langek *The World Guests* («Munduaren gonbidatuak») izeneko proiektu bat azaltzen du, opera performance moduan definitzen da, Utrechten bizi diren gutxiengo etnikoekin. Telesail bat ere egin zen, lagungarri, ordu-erdiko bost kapitulu zituen. Horietako bakoitza kultura bati eta langile bati buruzkoa da.
-
- 5.22 DLA/000022
Arts Council New Zealandek Darcy Langeri 1988an bidalitako gutuna. Jakinarazten zitzaion ez zitzaizkiola eman arte bisualen nazioarteko programaren funtsak, *Aire del Mar prerformance*-a Kanadara eta Estatu Batuetara eramateko.

-
- XV Saint-Pierre-et-Miquelon-eko bandera Ferran Llagosteraren Vida y Trabajo en Terranova proiektuaren dokumentazio-lagina. Itsasoz haraindiko lurralde frantsesa da, Kanadako kostaren parean kokatua. Historikoki, Kantauri itsasoko bakailao-ontzi bikoteentzako portutzat erabili da.
- Ferrán Llagosterak utzia.

** DLA sigladura daramaten dokumentu guztiak Darcy Lange´ren artxiboaren parte dira eta Darcy Lange Estate eta Govett-Brewster Art Galleryk utzita erakusten dira. Erakusten diren Darcy Langeren bideo guztiak Darcy Lange Estate, Govett-Brewster Art Gallery eta Nga Taonga Sound & Vision-ek utzi dituzte.

Erakusketa

2018.12.01 - 2019.03.10

I. Solairua

Ordutegia:

Asteartetik ostegunera: 12:00 - 20:00

Ostirala: 12:00 - 21:00

Larunbata: 10:00 - 21:00

Igandea eta jaiegunak: 10:00 - 20:00

TABAKALERA

